

Baketik_en urteko gogoeta, proposamen eta dibulgazio ekimena

ÉR

bizikidetza eta adiskidetze
kultura berri baterako

2017

indargunea

Elkartasunaren garaia

2017ko urtarrila

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

baketik

Aurkezpena

2011ko urtarrilean Baketik-ek «Adiskidetzarako Indarguneak» ekimena jarri zuen abian. Urtearen hasieran, geure gizartearen bizikidetzeta eta adiskidetze-kultura berria bultzatzea helburu duen agiria aurkeztea da ekimenaren xedea.

Lehenengo agiriaren izenburua honakoa izan zen: «Adiskidetze-prozesu bat modu partekatuan kokatzeko eta bultzatzeko oinarri-proposamena». Eredu desberdinetara (politikoa, udal mailakoa, hezkuntza, elkarteak eta eguneroko bizitza) zuzenduak zeuden «Bost proposamen zehatz» izenburua zeraman 2012 Indarguneak. 2013koak aliantza estrategikoa proposatzen zuen udalen eta ikastetxeen artean herri mailan bizikidetzeta bultzatzeko. 2014 Indarguneak humanizazioa defendatzen zuen sufrimendu pertsonalak eta kolektiboak murrizteko eta giza harremanak zein sozialak eta politikoak berreraikitzeko elkargune eraikitzaile gisa. 2015 Indarguneak bake prozesua sendotzeko gizarteak eskaini dezaken funtsezko energiaren aldeko apustua egin zuen. Azkenik, 2016 Indarguneak sufrimendura gerturatzearen inguruko hausnarketa eta gizarte-ekintza bultzatu nahi zituen, gizatasunaren bidean pausoak ematen joateko helburuarekin.

2017an, Indarguneak elkartasunaren inguruan hausnartu nahi du. Sufrimendu bidegabean eta giza-duintasunaren balorearen gainbehera orokortuaren testuinguruan, horiekiko elkartasuna eta konpromiso pertsonal nahiz kolektiboa ezinbesteko bihurtzen da. Elkartasunak, ordea, gure giza ahalmen hoberenei bide ematen dien bezala, gure mugen arlorik sentikorrenak ere ukitzen ditu: protagonismo gosea, onak izatearen itxura ematea, geure interesen asebetetzea... Gutxienez bi arrisku dakartza gai honek: gure giza-izateak enpatia eta elkartasuna errotik ateratzea, pertsona orok duen zerbait izanik ere, gaurkoa bezalako garaietan zerbait astuna bihurtzen baita; eta elkartasuna geure interes eta itxaropenei erantzuteko tresna bat gehiago bilakatzea.

Bizikidetzarik egongo bada, orain edo etorkizunean, pertsonen arteko elkartasunaren gainean eraiki beharko da. Horregatik, sufrimenduaren eta bidegabekerien aurrean konpromisoa sustatzea beharrezkoa da; beti ere hausnarketa testuinguru etiko batean, non gure elkartasun keinuak ez diren geure burua engainatzeko aukera izango, baizik, soilik, dagokigunari erantzuteko aukera: giza-duintasuna babestea.

Testuingurua: orainaldi nahasia eta etorkizun ezaguna

Mundu guztiak ziurtzat ematen du belaunaldi gazteak euren gurasoak baino okerrago biziko direla. 1917an, Lehen Mundu Gudako Europan behintzat, belaunaldi oso bat lubaki eta gerra fronteetan hil zen. Gaur, ehun urte beranduago, belaunaldi berrikoak demokratiko deitutako sistemetako seme-alabak dira, eta eskubide batzuk dituzte, ez soilik zibil eta politikoak, baita ekonomikoak eta sozialak ere, kasu askotan. Baina oraina atsekabez josita dago eta batek daki nolakoa izango den etorkizuna. Bidegabeak zaizkigun eta sufrimendua eragiten duten hainbat eta hainbat gertakarik, eta horietako askoren (ez guztien) gehiegizko esposizio mediatikoak, testuinguru oso nahasi batean kokatzen gaitu.

Sufrimendu bidegabea eragiten duten bost prozesu:

- **Krisi ekonomikoak:** Hamarkadetan lehen aldiz, krisi ekonomikoen epizentroak iparreko ekonomietan kokatu dira. Krisi hori zetorrela ikusi ez zuten askok diote okerrera pasa dela jada. Baina langabeziaren eta lanaren ezegonkortzearen datuek kontrakoa erakusten dute. Asko eta asko dira bere bizi-baldintzak oso kaltetuak ikusi dituztenak. Gehienek euren familian ikusi dituzte krisiaren ondorioak. Akatsak zuzentzeko jarraitzen dute. Askok uste dute merkatuak erregulatu behar duela ekonomia, eta ez Estatuak eta honen politika publikoek. Merkatu horrek, ordea, ez du giza-beharretan erreparatzen, ondasun eta zerbitzuen eskaerak soilik ditu kontuan; lana edo etxebizitza bezalako beharrak eskaintza-eskaeren logikaren menpe uzten ditu merkatuak. Honentzat, gizarte-babesa bera da krisi ekonomikoa ekarri duena.
- **Gerrak eta terrorismoak:** Erabilera politiko eta ekonomikorako indarkeria ere XXI. mendearen lehen urteetako protagonista izan dira. Gerra fronteetan ordez, intentsitate gutxiagoko gerrak daude indarrean, baina guztietan herritar zibilak dira biktima nagusiak. Horri gehitu behar zaio "nazioarteko terrorismo" bezala ezagutzen dena. Guztion imajinario kolektiboan ezarri den fenomeno bat da hau, bere hilketa masibo, atentatu eta ekintza indibidualen bitartez, giza-duintasuna baino garrantzitsuago liratekeen arrazoen izenean, milaka pertsonen bizitza erauzi eta oso arriskutsua den arma bat hedatu duena: beldurra. Ez dira Europako herrialdeak fenomeno honen eraginik latzenak jasan dituztenak, baina bistakoa da Europa beldurrez bizi dela, baita mugez barrura ere.
- **Pertsona errefuxiatuak:** Izan ahanzturan gelditutako gatazken, nahiz jarraipen mediatiko gehiago duten gerraren ondorioz, Siriakoa kasu, gerratik ihes egiten ari diren pertsonen kopuruak izugarri egin du gora. Hamarkadetan zehar, asko ziren euren herrialdean bertan desplazatuak zeuden pertsonak, baita beste herrialde batzuetan errefuxiatu behar zutenak ere. Berria dena zera da, Europa ikuskizun triste honen lehen lerroan dagoela. Mediterraneo itsasoa milaka gizon, emakume eta haurrentzako tranpa hilgarri bilakatu da. Eta garbi hitz egiten badugu,

Europar Batasuneko klase politikoaren zati handi batek erabaki du erkidegoak atek behar dituela eta ahaztu egin behar dituela, ez errefuxiatu bezala duen iragana soilik, baina baita duen balore nagusietako bat ere: giza duintasunaren defentsa.

- Ingurunea: Eguna joan, eguna etorri, nabari ditzakegu gizakiak planetari etengabe egiten dizkion erasoen ondorioak. Berotze globala, hondamendi naturalak ugaritzea, deforestazioa, animalia aniztasuna murriztea... eguneroko albiste bilakatu dira eta horrek igortzen digun mezuak kezkatu behar gintuzke. Hori gutxi balitz, guk geuk prozesu honen ondorioak geure azalean jasateaz gain, belaunaldi berrien etorkizuna hipotekatzen ari gara, nabarmen.
- Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak: Emakumeen eskubideen onarpenean egin diren aurrerapausoak asko eta esanguratsuak dira. Baina, bistan da, desberdintasunek jarraitzen dutela. Herrialde askotan desberdintasun horiek modurik latzenetan gertatzen dira: hezkuntza edo osasun zerbitzuak jasotzeko zailtasunak edo ukapena, emakumeen kontrako bortxaketa eta erasoak gerra taktika moduan erabiltzea; edo pobrezia tasa handiagoa. Gure inguruan, genero indarkeria da arazo honen aurpegirik ezagunena, baina, desberdintasunak baditu hain agerikoak ez diren, baina erabat salagarriak diren beste aurpegi batzuk ere: soldata-diskriminazioa; zaintzarekin zerikusia duen guztiaren ardura; hedabideek emakumeekin zerikusia duen orori eskaintzen dion trataera...

Eta euskal gizartearen kasuan

Mende erdi baino gehiagoko giza-eskubideen urraketan ostean, euskal gizarteak bakea eta elkarbizitza berri bat eraikitzen dihardu. Bide hori, ordea, ez da erraza. Askok dira ibilbide horretan egin diren aurrerapausoak. Bizikidetzak jada zerbait erreala da gure kale eta plazetan. Iraganeko jarrerak eta inertziak aldatzen doaz, zabalagoak dira gaur egun, desberdinen artean elkar entzuteari dagokionez, bederen. Baina egia da gaur egun oraindik jende askok sufritzen jarraitzen duela. Euskal gizarteak dosi desberdinetan bizi ditu oraindik frustrazioa, gertatutako guztiaren oroimenik gabeko etorkizun bati beldurra; edo aski bateratzailea ez den kontaketa bakar bat egotearen kezka, zauriak irekirik mantenduko dituen, irakurri gabe, eta batzuetan idatzi gabe, pasako diren orriak izango dituen; eta familia askoren sufrimendua, iraganean ez ezik, orainaldian eta etorkizunean ere kokatzen da.

Diagnostikoa: elkartasun krisia

Asko dira modu indibidualean edo kolektiboan aipatutako bidegabekerien aurrean erantzun bat ematen duten pertsonak. Horiek, ahal duten heinean batzuk, eta bizimodu bezala besteek, elkartasunerako konpromisoak hartzen dituzte sufritzen dutenei laguntzeko eta injustizia eragin duten kausak deuseztatzen laguntzeko. Horiei guztiei, lehenik eta behin, euren jarrera eskertu behar zaie. Haatik, gizartearen gehiengoak ez du horrelakorik egiten. Azaldutakoa bezalako testuinguru batean, elkartasuna eta gizarte eraldaketarako konpromisoa ez da ugaritu. Badirudi gizarteak ahaztu egin duela gizarte bera eraikitzeko beharrezko izan zen oinarrietako bat: elkartasuna.

Bost erantzun

- **Ezaxolakeria:** Gure gizarteko pertsona askok besteen sufrimenduari axolagabe izatea hautatu dute. Informazio faltak, edo informazio ugariak, ezintasun sentimenduak edo bidegabekeriak norberari eragitearen beldurrak, besteak beste, pertsona asko elkartasunezko jarreratik urruntzea ekartzen du. Eguneroko bizia, euren eta familiarena, bilakatu dira borroka pertsonal bakarra. Sufritzen duten haiekiko ez onarpenik, ez errefusik sentitzea hautatu dute. Albo batera gelditzea hautatu dute.
- **Etsipena:** Bidegabekeriak zerbait saihestezin bezala onartzea erabaki dute pertsona batzuek. Horietako batzuk lehen sinetsiko zuten posible zela horiek deuseztatzea, eta baliteke euren denbora eta indarrak ere eskaini izana horretarako. Gaur egun, ordea, etsita daude. Besteen sufrimenduari enpatia eta errukia sentitzen dute, baina jada ez dute sentitzen sufrimendu hortaz arduratzeko edo hura erremediatzeko bulkadarik. Beste aukerarik ez dagoela onartu dute. Bizitza horrelakoa da, bidegabea, loteria bat, eta ezin da ezer asko egin.
- **Enpatia, moda bezala:** onartu behar da enpatia, kontzeptu bezala, barru-barruraino sartu dela gure gizartearen. Baina bere zentzurik sakonaren bertsio murriztuz sartu da. Enpatia hau beste pertsonekin arazo simple batengatik konektatzea ahalbidetzen digun abilezia edo gaitasuna da: bestearen tokian jartzen jakitea. Errukira bai, baina konpromisora bultzatzen ez gaituen enpatia da. Gertatzen zaizunaz kezkatzen naiz, baina arduratu? Hori hobe zuk zeuk edo beste norbaitek egitea.
- **Frustrazio ziurreko konpromisoa:** Asko dira besteen sufrimenduak euren bezala sentitzen dituztenak, etsitzeari uko egiten diotenak, eta gainera, zerbait egin nahi dutenak. Pertsona hauek ordea, euren elkartasun konpromisoa itxaropen faltsu baten bitartez kanalizatzeko arriskua dute: euren borroka-gai den eraldaketa soziala, beraiek irudikatu bezalako izango dela. Mota honetako elkartasun batek, epe laburreko konpromiso bizia sortzen du, baina luzera frustrazioa, aspertzeta edo haserrea eragiten ditu, ahalegin pertsonal edo kolektiboaren emaitzak edo eraginak norberak uste zituenak baino baxuagoak direla ikusten denean.

- “Dena da balekoa”. Bizi dugun testuinguruaren ondorioz, pertsona askok erabaki dute zerbait egin behar zutela, keinu txiki bat bada ere. Baina kasu batzuetan gerta daiteke egiten duten hori, ez beti modu kontzientean, elkartasunean “dena baleko” den filosofiatik egiten aritzea. Borondatez baino, boluntarismoz egitea. Sufrimenduaren arrazoietan edo hura desagertzeko aldaketak bultzatzean jarri beharrean, begia sufrimenduaren ondorioetan jartzen duen elkartasuna. Elkartasun analgesikoa da, ongi sentiarazten gaitu baina ez du giza-duintasuna sustatzen, ez baititu eskatzen sufritzen dutenentzat bere buruarentzat defendatzen dituen eskubide berdinak, hein batean, agian uste duelako laguntzen dituen pertsona haiek ez direla bere pareko, duintasunari dagokionez.

Proposamena: elkartasun etikoaren garaia

Esandako guztiak sor lezake izua eta paralizatzea, edo sor lezake elkartasunari buruzko hausnarketa pertsonal eta kolektibo baten beharra. Neurri handi batean, azaldutakoak geure burua engainatzeko daukagun gaitasun hain gizatiarrera garamatza, handira jo bai, baina txikienean gelditzeko inertziara. Baketikek elkartasun etikoaren inguruko hausnarketa marko bat proposatzen du, lau ardatzetan oinarritutakoa:

- Enpatia, txikitik handira: Bestearen lekuan jarri bai, baina haren egoerarekin konprometitzea funtsezko ikusten ez duen enpatiaren ikuspegi erreduzionistaren aurrean, beharrezkoa eta posible da enpatiaren zentzu gorenera jotzea. Geure muga indibidualetatik aterako gaituen enpatia bat, harantzago begira jarriko gaituena, eta gure giza-balio nagusia balioan jarriko duena: bulkada egoista bat baino gehiago izan eta enpatia modu sakonenean garatzea, elkartasunari atea irekitzeko. Enpatiaren zentzu gorenak, kezkatik ardurara garamatza, bestearen sufrimendua geure sentitzetik haren kausa edo ondorioetan esku hartzera. Horregatik, umiltasuna, zintzotasuna eta, azkenik, eraldatuko nauten konpromisoak beharrezkoak dira. Umiltasuna, batzuetan gure enpatia lagundu nahi dugun harenganako nagusitasunean oinarritzen dela onartzeko. Zintzotasuna, nor bere buruarekin hitz egin eta kontraesanak onartzeko, baita besteei laguntzeko jarreran nagoenean ere. Eta, azkenik, nire lehentasunetan aldaketak ekarriko dituzten elkartasunerako konpromisoak hartzea. “Barrutik ukitzen” gaituen konpromiso bat.
- Neure interesetatik harago: Elkartasunak geure onena ematera irekitzen gaitu, baina geure burua engainatzea ere ekar lezake maiz. Elkartasun konpromiso guztien atzean daude publiko egiten ditugunak baino motibazio eta itxaropen sakonagoak. Agian ez dakigu zeintzuk diren ere,

baina baliteke neugan soilik zentratutako elkartasun mota batera bideratzen aritzea, edo neure interesak gailentzen diren elkartasun batera. Horregatik, berriz diogu, zintzotasuna behar da gure konpromisoaren atzean dauden behar pertsonalak identifikatu eta onartzeko. Elkartasuna ezin da doakotasuna soilik izan. Hori perfekzioa helburutzat jartzea litzateke, eta perfekzioa ez da existitzen. Baina lagundu behar digu, gida-puntu bezala, gure elkartasunaren zergatiaz galdetzen digun galdera bezala. Doakotasunak gure kontraesanekin lan egiten laguntzen digu, sufritzen duenari gure laguntza eskaintzea gure esperientzia enpatikoaren ondorio logiko izanik, bueltan jasoko dugunari erreparatu gabe. Gauza hauez hausnartzeak agian ez ditu nire ekintza solidarioak aldatuko, baina horiek hobeto kokatzen lagunduko dit, justizia bilatzea izango baita elkartasun horren epizentroa, eta ez neure interesak bakarrik.

- Itxaropen faltsuen orde, itxaropen bikoitza: Bidegabeak iruditzen zaizkigun egoerekiko konpromiso solidarioak ez lukete oinarrian itxaropen bat izan behar, gertatzea nahiko genukeen hori gertatuko dela ziurtzat jotzea. Gure esku ez dauden gauzetan (gure itxaropenetan) oinarritutako elkartasun baten bestaldean, bada gure esku dauden gauzetan, nahiko genukeena gertatzeko baldintzak sortzean, oinarritzen den elkartasun bat. Honek itxaropen bikoitzaren alde egitea dakar: itxaropen pasibo bat, itxaropen jakitea eta guk nahi duguna gerta daitekeela sinestea litzatekeena; eta itxaropen aktibo bat, ekintzara pasa eta gertatzea nahiko genukeen horrek gertatzeko aukera gehiago izan ditzan baldintzak sortzera bultzatzen gaituena. Bien baturak pazient izaten lagunduko digu, baina baita ausartak ere, zain egoteko ez ezik, nire desira eta helburu solidarioak betetzea erraztuko duten aukerak identifikatzeko.
- Espektatiba faltsuetan oinarritutako elkartasunaren harrokeriaren aurrean, "ahal dugu eta lortuko dugu", gure konpromisoa itxaropen erreal eta lorgarri batean jar dezakegu: "ahal dugu eta horretarako baldintzak sortuko ditugu". Aldaketa "sinple" honek dakarrena da elkartasuna ez oinarritzea lortutako emaitzetan, baizik eta egiten dugunak zentzua duen eta merezi duen konbentzimendu sakonean. Biraketa honek bete gabeko asmoek sortzen duten frustrazioaren zama astunetik askatuko gaitu.
- Giza-duintasuna balio absolutu bezala: baina zergatik hautatu beharko genuke elkartasuna? Zein da gure konpromisoaren iparrorratza gidatu beharko lukeen iparra? Giza-duintasuna da erantzuna, eta zehazki, hura balio absolututzat hartzea. Gizartearen XX. mendeko ekarpenik garrantzitsuena izan zen giza-duintasunaren kontzeptua sortzea. Horretan oinarritzen dira Giza-Eskubideak, duintasuna ez baita eskubide bat gehiago, haien oinarria baizik. Giza-duintasuna desberdintasunen gainetik denok dugun "esentzia" hori da. Pertsona guztiok errespetua merezi dugula gogora arazten digu, ez dugula preziorik, balio bat baizik eta, beraz, ezin gaituztela baliabide soil bezala tratatu. Elkartasuna eta hortik datorren konpromisoa, giza-duintasunarekiko errespetuaren inguruan kokatu behar da. Pertsonak, nahiz eta besteen laguntza, elkartasuna edo harrera behar izan, duinak izaten jarraitzen dute eta errespetu guztia merezi dute. Horregatik, elkartasun kontuetan hausnarketa egin behar badugu, izan dezagun buruan esaldi hura: trata ditzagun besteak besteak

gu tratatzea nahiko genukeen moduan. Konpromiso edo keinu solidario baten aurrean, galde diezaiozun geure buruari geuk nahiko ote genukeen halako laguntza edo elkartasun mota bat.

Ondorioa

Orainaldi nahasi eta etorkizun ezezagunaren testuinguruak krisian jarri du elkartasuna, hain justu gehien behar denean. Alde batetik, bestearen minaz errukia sentitzeko pertsona orok dugun gaitasuna traba bat bihurtu delako. Emozionalki efizienteena ezaxolarena egitea edo etsitzea dela dirudi. Eta bestetik, pertsona askok euren elkartasunerako konpromisoa norberaren behar edo asmoak asetzeko erabiltzen baitu, doakotasunetik urrun eta hurkoaren sufrimenduarekiko inolako ardua etikorik gabe; edo pentsatzen dute borondate onak soilik eraman gaitzakeela zoritxarreko egoeretan nahiko ez genituzkeen jarrera eta portaeretara.

Haatik, asko diren arren umiltasunetik konprometitzen diren pertsonak, euren muga eta kontraesanak onartuz, gainerakook ere hobetu dezakegu elkartasuna. Enpatiaren urritasunetik handitasunera pasa gaitzke; geure interesetatik harago joan gaitzke; elkartasuna neur dezakegu ez lortutako emaitzen arabera soilik, baizik saiatzeak merezi duela pentsatuz. Azkenik, giza-duintasuna gure elkartasunaren sustrai eta ipar bilakatu dezakegu: elkartasunaren aldeko hautua egitean nire duintasunak sufritzen duen pertsonarekin lotzen bainau, eta lotua egoten jarraitu nahi, sufrimenduak merezi duten errespetua lermatzen ez duelarik

Oinarrian etika izango duen elkartasun-konpromiso honek gizatiarrago egiten gaitu, lehen helburua aldaketa pertsonala dela onartzeko umiltasunetik sortzen baita. Kontraesanez betetako prozesu konplexu horren ostean, gizartearen eraldaketa zabaldu eta bultzatzetik gertuago egongo gara.

Iniciativa anual de reflexión, proposición y divulgación de Baketik

ÉR acento 2017

para una nueva cultura de
convivencia y reconciliación

Tiempo de solidaridad

enero 2017

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

baketik

Presentación

En enero de 2011, Baketik puso en marcha el proyecto «Acentos para la reconciliación». Una iniciativa consistente en la presentación a principios de cada año de un documento orientado a contribuir a una nueva cultura de convivencia y reconciliación en nuestra sociedad.

El primer acento se tituló «Bases para enmarcar y promover de modo compartido un proceso de reconciliación». El Acento 2012 se tituló «Cinco propuestas concretas» que iban dirigidas a los ámbitos político, municipal, educativo, asociativo y de la vida cotidiana. El Acento 2013 proponía una alianza estratégica de Ayuntamientos y centros educativos para promover la convivencia en el ámbito local. El Acento 2014 defendía la humanización como punto de encuentro constructivo desde el que reducir los sufrimientos personales y colectivos y recomponer las relaciones humanas, sociales y políticas. Y finalmente, el Acento 2015 apostó por la participación social como energía necesaria para avanzar en la paz y la convivencia. Y finalmente, el Acento 2016 quiso promover la reflexión y la acción social sobre el acercamiento al sufrimiento como una vía práctica que nos permitiera, a nivel personal y social, dar pasos en la senda de la humanización.

En el año 2017, el Acento quiere reflexionar sobre la solidaridad. En un contexto generalizado de sufrimientos injustos y pérdida de valor de la dignidad de las personas, la solidaridad y el compromiso personal y colectivo con éstas, se vuelve imprescindible. Sin embargo, la solidaridad además de abrirnos a lo mejor de nuestras posibilidades humanas, también toca las fibras más sensibles de nuestras limitaciones: el afán de protagonismo, dar la imagen de ser buenos, satisfacción de nuestros intereses... Corremos al menos un doble riesgo: querer extirpar de nuestra condición humana nuestra empatía y solidaridad, pues pese a ser algo que forma parte de todas las personas, en tiempos como los actuales, se convierte en algo molesto; y hacer de la solidaridad un recurso más al servicio de nuestras necesidades y expectativas personales.

La convivencia presente y futura tendrá como uno de sus pilares la solidaridad entre las personas, o no será. Por ello, es preciso fomentar el compromiso ante el sufrimiento y la injusticia pero dentro de un marco de reflexión ética que no haga de nuestros gestos solidarios, una oportunidad para autoengañarnos, sino para simplemente responder ante lo que nos toca: promover la dignidad humana.

Contexto: presente convulso y futuro cierto

Está extendida la convicción de que las generaciones más jóvenes por primera vez vivirán peor que sus progenitores. En 1917, al menos en la Europa de la I Guerra Mundial, toda una generación quedaba diezmada entre las trincheras y los frentes de guerra. Hoy, cien años más tarde, las nuevas generaciones, son hijos e hijas de sistemas calificados como democráticos, y cuentan con derechos, no sólo civiles y políticos, sino en muchos casos, económicos y sociales. Sin embargo, parece que el presente destila tristeza y, el futuro, se muestra incierto. Los numerosos hechos y actos que consideramos injustos y generadores de sufrimiento, así como la sobreexposición mediática de algunos de ellos (no de todos), nos ubican ante un contexto muy convulso.

Cinco procesos generadores de sufrimiento injusto:

- **Crisis económicas:** Por primera vez en décadas, el epicentro de la crisis económica se ubicaba en las economías de norte. Muchas de las personas que no vieron venir aquella crisis, dicen hoy que lo peor ha pasado. Los datos de desempleo y la precarización laboral, entre otros datos, nos dicen lo contrario. Son muchas las personas que han visto reducidas significativamente sus condiciones de vida. Una gran mayoría ha visto en su propia familia las consecuencias de la crisis. Nada indica que los errores se hayan corregido. No son pocas las voces que consideran que debe ser el mercado y no el Estado y sus políticas públicas, el que debe regular la economía. Un mercado que no entiende de necesidades humanas, sino de demanda de bienes y servicios. Un mercado que deja bienes como el empleo o la vivienda en manos de su lógica de oferta y demanda. Un mercado para el que la protección social se ha convertido en chivo expiatorio de la crisis.
- **Guerras y terrorismos:** La violencia para usos políticos y económicos ha sido protagonista también de los primeros años del siglo XXI. Los frentes de guerra en gran medida han dejado paso a guerras de menor intensidad, pero en las que la población civil es la víctima por excelencia. A ello se le ha unido el denominado "terrorismo internacional". Un fenómeno que se ha instalado en el imaginario colectivo, con los diversos asesinatos masivos, atentados o actos individuales, que en nombre de causas concebidas como superiores a la dignidad humana, han acabado con la vida de miles de personas y extendido un arma muy peligrosa: el miedo. No son objetivamente los países europeos lo más afectados por este fenómeno, pero es evidente que hoy Europa vive atemorizada, incluso de puertas hacia dentro.
- **Personas refugiadas:** Los conflictos olvidados, así como la continuidad de guerras con mayor seguimiento mediático, como es el caso del de Siria, han generado un aumento alarmante del número de personas que huyen de la guerra. Durante décadas, eran muchas las personas que se veían desplazadas en sus propios países, o que incluso debían refugiarse en otros. La novedad ha sido que hoy Europa está en primera fila de tan triste espectáculo. El mar Mediterráneo, se ha convertido en una trampa

mortal para miles de hombres, mujeres y niños porque, hablando con honestidad, una gran parte de la clase política comunitaria ha decidido que la Unión Europea cierre sus puertas y olvide, no sólo su pasado como población refugiada, sino también uno de sus principales valores: la defensa de la dignidad de las personas.

- Medio ambiente: Un día tras otro, podemos conocer las consecuencias que el mal trato al que la humanidad viene sometiendo al planeta, está produciendo. El calentamiento global, el aumento de los desastres naturales, la deforestación, la reducción de la diversidad animal... se han convertido en noticias ordinarias cuyo mensaje deberíamos tomar como claramente alarmante. Por si ello fuera poco, no sólo estamos sufriendo ya las consecuencias de este proceso, sino que además estamos hipotecando, claramente, el futuro de las próximas generaciones.
- Desigualdad entre mujeres y hombres: Son muchos y grandes los avances que se han producido en el reconocimiento de los derechos de las mujeres. Sin embargo, salta a la vista que la desigualdad, persiste. En muchos países esa desigualdad se presenta en sus formas más extremas: desigual o inexistente acceso a la educación o la salud, uso de las violaciones y agresiones hacia ellas como parte de la táctica de la guerra; o en una mayor tasa de empobrecimiento. En nuestro entorno, la violencia de género es su parte más visible aunque la desigualdad toma formas menos impactantes, pero no por ello menos denunciables como: la discriminación salarial; la sobrecarga de todo lo relacionado con los cuidados; el trato que los medios de comunicación hace en general de todo lo relacionado con las mujeres...

Y para el caso de la sociedad vasca

Tras más de cinco décadas de vulneraciones de derechos humanos, hoy la sociedad vasca sigue en su camino de construcción de la paz y una nueva convivencia. Sin embargo, ese camino no es sencillo. Son muchos los avances en esta materia. La convivencia ha empezado a mostrarse como algo real en nuestras calles y plazas. Las viejas actitudes y las inercias del pasado van tornándose en una mayor apertura al menos a la escucha entre diferentes. Pero también es cierto que muchas personas hoy siguen sufriendo. La sociedad vasca se ve inmersa en una combinación en dosis diferentes de: frustración, miedo a un futuro sin memoria de todo lo ocurrido o de un único relato que no sea lo suficientemente inclusivo, de heridas abiertas, de páginas que se quieren pasar sin haber sido aún leídas, y en algunos casos escritas, o de familias para las que el sufrimiento no se ubica en el pasado, sino en un presente que parece extenderse también hacia el futuro.

Diagnóstico: crisis de solidaridad

Muchas son las personas que de forma individual y colectiva, reaccionan ante alguna de las injusticias antes descritas. Personas que, en la medida de sus posibilidades, o incluso, como forma de vida, asumen compromisos solidarios para atender a los que sufren y para revertir las causas de la injusticia. A todas ellas, no queda más que, en primer lugar, agradecerles su actitud. Sin embargo, una gran mayoría social, no responde a este perfil. Frente a un contexto como el descrito, la solidaridad y el compromiso con la transformación social no se han multiplicado. Pareciera que la ciudadanía hubiera olvidado uno de los tres pilares sobre los que se construyó: la solidaridad.

Cinco respuestas

- **Indiferencia:** Muchas personas en nuestra sociedad han optado por ser indiferentes al sufrimiento ajeno. La falta de información, en otros casos, la sobre información, el sentimiento de impotencia, el miedo a que la injusticia nos afecte... entre otras muchas razones, hacen que para muchas personas, la solidaridad no vaya con ellas. Su día a día y, el de su familia, se han convertido en única lucha personal. Han optado por no sentir, ni aceptación ni rechazo, ante lo que otros sufren. Han decidido quedarse al margen.
- **Resignación:** Algunas personas han preferido asumir la injusticia como inevitable. Puede que alguna de ellas, antes creyeran que era posible acabar con ella, o incluso dedicaron, tiempo y esfuerzo a ello. Sin embargo, en la actualidad, se han resignado. Empatizan con el sufrimiento ajeno y se compadecen, pero ya no hay nada en ellas que las mueva a querer hacer algo por atender o remediar el sufrimiento. Han aceptado que no hay elección. La vida es así, injusta, una lotería, y poco pueden hacer.
- **La empatía como moda:** Debe reconocerse que la empatía como concepto ha calado en nuestra sociedad. Pero lo ha hecho como una reducción de su sentido profundo. Es la empatía como habilidad o destreza que nos permite conectar mejor con el resto de las personas por una simple cuestión: saber ponerse en el lugar del otro. Es la empatía que nos mueve al lamento, pero no al compromiso. Me preocupo de lo que te ocurre, pero ¿ocuparme de ello?: mejor hazlo tú mismo o que lo hagan otros.
- **El compromiso con frustración asegurada:** No son pocas las personas que sienten los sufrimientos ajenos como propios, que niegan a resignarse y que, además, quieren hacer algo. Personas que, sin embargo, pueden estar canalizando su compromiso solidario a través de una falsa expectativa: la de creer que el cambio social por el que luchan será tal y como lo han imaginado. Una solidaridad de este tipo, produce un compromiso muy intenso a corto plazo, pero una frustración, hastío o enfado una vez que se comprueba que los resultados o efectos del esfuerzo personal o colectivo, no responden a lo que se esperaba de ellos.

- El “todo vale”: Como consecuencia del contexto en el que vivimos, muchas personas han decidido que, por pequeños que fueran su gestos, algo debían hacer. Pero en algunos casos puede correrse el riesgo de que lo estén haciendo, no siempre de forma consciente, desde la filosofía de que en la solidaridad, “todo vale”. Una solidaridad que se mueve más que por voluntariedad, por voluntarismo. Una solidaridad que no se centra en las causas del sufrimiento, ni en promover cambios para su erradicación, sino más en las consecuencias. Es una solidaridad analgésica que nos hace sentir bien pero que no nace ni promueve la dignidad humana, porque no defiende para los que sufren los mismos derechos que defienden para sí misma/o, en parte, porque quizás no considera que las personas a las que ayudan sean iguales en dignidad que él o ella.

Propuesta: tiempo de solidaridad ética

Con todo lo dicho, podríamos alarmarnos y paralizarnos por completo, o decidir que, a nivel personal y social, necesitamos reflexionar sobre la solidaridad. En gran medida, gran parte de lo expuesto, nos remite a algo tan humano como la capacidad que tenemos para autoengañarnos, para aspirar a lo más, pero finalmente, tender a lo menos. Baketik propone un marco de reflexión sobre la solidaridad ética, basada en cuatro ejes:

- Del menos al más de la empatía: Frente a la visión reduccionista que se ha instalado en nuestra sociedad, por la cual, concebimos la empatía como la capacidad para solamente ponernos en el lugar del otro, pero no comprometernos con su situación, es preciso, y es posible, avanzar hacia el más de la empatía. Una empatía que nos saque de nuestras fronteras individuales, nos haga mirar más allá, y vuelva a poner en valor nuestra gran capacidad humana: la de elegir ser algo más que un impulso egoísta y desarrollar en profundidad la empatía, para abrir así la puerta a la solidaridad. El más de la empatía pasa de preocuparse a ocuparse de los demás, de sentir como propio el sufrimiento ajeno a poder actuar sobre sus causas o efectos. Pero ello requiere de humildad, honestidad y finalmente, compromisos que me transformen. Humildad para asumir que a veces mi empatía se basa en la superioridad sobre el que se supone que quiero ayudar. Honestidad, para dialogar internamente y reconocer mis contradicciones, también cuando se supone que estoy en actitud de ayuda a los demás. Y finalmente, asumir compromisos de solidaridad que en primer lugar supongan un cambio en mis prioridades. Un compromiso que “toca por dentro”.
- Más allá de mis intereses: La solidaridad nos abre a dar lo mejor que podemos ofrecer pero también es un campo propicio para el autoengaño. Todo compromiso solidario tiene unas motivaciones y unas expectativas más profundas que las que hacemos públicas. Puede que incluso no las conozcamos pero nos estén orientando a un compromiso exclusivamente centrado en mí, o en el que solo se priorizan mis intereses. Nuevamente, se precisa honestidad para asumir cuáles son las

necesidades personales más profundas que están motivando nuestro compromiso. La solidaridad no puede ser sólo gratuidad. Ello sería aspirar a la perfección y ésta no existe. Pero sí debe servirnos como punto de orientación, como pregunta que nos interpela sobre el por qué de nuestro compromiso. La gratuidad nos ayuda a trabajar con nuestras contradicciones, a aspirar a ofrecernos a la persona que sufre como consecuencia lógica de nuestra experiencia de empatía, más allá de lo que recibamos a cambio. Reflexionar sobre estas cuestiones puede que no cambie mis acciones solidarias, pero las reubicará, porque habremos elegido hacer de la búsqueda de la justicia el centro de mi solidaridad, y no sólo mis intereses.

- La doble esperanza frente a las falsas expectativas: El compromiso solidario con situaciones que consideramos injustas no debería cimentarse en expectativas, en dar por hecho que va a ocurrir, eso que hemos imaginado. Frente a una solidaridad basada en algo que no está en nuestras manos (nuestras expectativas), está aquella que se basa en algo que sí está a nuestro alcance: crear condiciones para que ocurra eso que anhelamos. Ello requiere apostar por la doble esperanza: una esperanza pasiva que consiste en esperar y confiar en que puede darse eso que queremos; y una esperanza activa, que nos insta a ser proactivos, poner de nuestra parte para generar condiciones que permitan que, eso que esperamos, tenga mayor probabilidad de producirse. La suma de ambas nos permitirá ser pacientes, pero también audaces para además de esperar, identificar oportunidades que potencien el cumplimiento de mis deseos y objetivos solidarios. Frente a la soberbia de una solidaridad basada en falsas expectativas, "podemos y lo lograremos", podemos reubicar nuestro compromiso en una expectativa factible y real: "podemos y crearemos condiciones para ello". Este "simple" giro hace que la solidaridad no se base en los resultados conseguidos, sino en la profunda creencia de que lo que hacemos, tiene sentido y merece la pena. Este giro nos liberará de la pesada carga de la frustración generada por las expectativas no cumplidas.
- La dignidad humana como valor absoluto: pero ¿por qué deberíamos elegir la solidaridad?, ¿cuál es el norte que debería guiar la brújula de nuestro compromiso?. La respuesta se encuentra en la dignidad humana y más concretamente, en ubicarla como valor absoluto. La gran aportación de la humanidad en el siglo XX, fue el concepto de dignidad humana. Sobre ella se asientan los Derechos Humanos, en tanto en cuanto, la dignidad no es un derecho más, sino la base de su existencia. La dignidad humana nos muestra esa "esencia" que, más allá de las diferencias, todas las personas compartimos. Nos recuerda que todas las personas merecemos respeto, que no tenemos precios, sino valor en sí mismos y que, por lo tanto, no debemos ser tratadas como meros recursos. La solidaridad y el compromiso que derivan de ella, deben ubicarse dentro de un marco de respeto a la dignidad humana. Las personas, también cuando necesitan nuestra ayuda, colaboración, acogida, siguen siendo dignas, merecedoras de todo el respeto. Por ello, en cuestiones de solidaridad deberíamos reflexionar a partir de aquella

máxima que nos insta a tratar a los demás, como nos gustaría que nos trataran a nosotros. Ante un compromiso o gesto solidario, deberíamos preguntarnos, si nos gustaría una ayuda o acompañamiento de ese tipo.

Conclusión

El actual contexto de presente convulso y futuro incierto ha puesto en crisis la solidaridad, justo cuando es más necesaria. Por un lado, porque la capacidad que todas las personas tenemos para compadecernos del dolor ajeno, se ha convertido en una molestia. Lo eficiente emocionalmente parece ser indiferente o resignarse. Y por otro lado, porque muchas personas basan su compromiso solidario en la satisfacción de necesidades o expectativas personales, alejadas de la gratuidad y de la responsabilidad ética ante el sufrimiento ajeno, o incluso, en creer que sólo la buena voluntad, puede llevarnos a actitudes y comportamientos que no deseáramos en una situación de adversidad.

Sin embargo, además de que son muchas las personas que se comprometen y lo hacen desde la humildad de aceptar sus limitaciones y contradicciones, el resto podemos mejorar también en nuestra solidaridad. Podemos pasar del menos al más de la empatía; podemos ir más allá de nuestros intereses personales; podemos medir nuestra solidaridad no por los resultados conseguidos, sino por el hecho de que ésta merece nuestro esfuerzo. Podemos finalmente hacer de la dignidad humana raíz y norte de nuestra solidaridad: elegir la solidaridad porque mi dignidad me une a las personas que sufren, y querer serlo, sin que su sufrimiento reduzca el respeto que se merecen.

Este compromiso solidario con base ética nos hace más humanos porque brota desde la humildad de afrontar que el primer reto es el cambio personal. Gracias a ese proceso complejo y lleno de contradicciones estaremos más cerca de extender y promover la transformación al resto de la sociedad.